

HERRITARREN PARTE-HARTZEA

AUZO-BILERA: Urki 2024/11/21

Saila Laburpena

Udaltzaingoa

Bizilagun bat kexu da Albert tabernaren pareko zebra-bidearengatik. toki arriskutsuan dago eta jendeak bide erditik gurutzatzen du zebra-bidea erabiltzea saihesteko. Bestalde, Eulogio Garate 1-3ko zebra-bidean (Diana tabernaren alturan) espaloi-mehargune bat egin dadila eskatzen du. Bizilagun berak zamalanetarako gune bat eskatzen du inguru horretan.

Errekatxu kalean egiten ari den obrarekin, ingurua berrurbanizatuko da. Zamalanetarako guneari dagokionez, orain ingurua berrurbanizatu dugu. Aldaketak eginda, eskaera ikusiko dogu.

Udaltzaingoa

Auzokide bat Puntu y aparte diskotekarengatik kexatzen da. borroka, zarata handia... Errepikatzen den kontua da eta irtenbideak eskatzen ditu.

Poliziak eta Hirigintza Sailak establezimendu horren etengabeko kontrola egiten dihardute.

Zerbitzuak

Txaltxazelaiko auzokide batek dioenez, espaloia zikina dago. koipea dauka, eta irristatu egiten da. Bestalde, inguruko edukiontzietan botila asko egoten dira kanpoan.

MANKOMUNITATEAREN ERANTZUNA: Beira-
edukiontziengatik arituko dela uste dut. Ecovidrioren zerbitzu dugu eskualde osoan jasaten dugu. Ekitaldiren bat dagoenean oharra pasatzen dugu edukiontziak hustu ditzaten, eta askotan gure zerbitzuko langileek jaso behar izaten dute kanpoan dagoena. Gorabehera guztien berri ematen dugu. Erantzun-denbora ez dago gure esku. Koipeari eta irristatzeari dagokionez, jakingo duzuen bezala, larrialdietan ur-makinak pasatzen ditugu, aurreikusita dauden lekuetatik atera eta inguru horretara eramanda. Ez dago guztiz zehaztuta non gertatzen den gorabehera.

HERRITARREN PARTE-HARTZEA

AUZO-BILERA: Urki 2024/11/21

Saila Laburpena

Udaltzaingoa

Txaltxazelaiko txoritegian asteburuetan arazoak sortzen dira: musika topera, lotu gabe ibiltzen diren txakurrak. Bizilagun berak dio abiadura-murritzailleak jarri behar direla Txaltxazelaiko errepidean.

Udaltzaingoa toki horren jarraipena eta kontrola egiten du. Txakurrei dagokienez, ez dago zertan lotuta eraman, arraza arriskutsu gisa sailkatutako arrazakoa ez bada.

Zerbitzuak

Eskailera mekanikoen parean bizi den Txikito 6ko bizilagun batek sarbide-arazoak ditu. 23 etxebizitza daude, gehienetan jende nagusia bizi da, eta etxetik irteteko arazoak dituzte arrapala irisgarriarik ez dagoelako. Horrez gain, lurrean lirdinga edo berdina dago.

Mankomunitatearen erantzuna: Esan dudan bezala, larrialdietan ematen dugu arreta, ur-makinak lanean ari diren lekuetatik atera eta inguru horretara eramanda. Irisgarritasunari begira, hobetzeko aukerak aztertzen ari gara; esku-hartze ugari ditugu aurreikusita.

Zerbitzuak

Polonia Etxeberria 18ko bizilagun batek dioenez, Urkiko igogailuaren kanpoan dagoen baranda apurtuta eta ugertuta dago. Horrez gain, gaineko estalki txikitik berdina edo lirdinga dago zintzilik.

Ikuskaritza egin ondoren, ikusten da baranda ez dagoela apurtuta, zaharkituta eta guneren batean ugertuta baizik. Aztertuko da baranda lixatzea eta margotzea; hala ere, esan beharra dago barandak aldia-aldian margotzen direla, ezarritako lehentasunen arabera.

Zerbitzuak

Bizilagun bat kexu da inguruan dauden arratoiengatik. Denda bat dauka Urkin, eta bere negozioaren kanpoan atzera eta aurrera ibiltzen direla dio. Rioja tabernaren inguruan ere ba omen daude arratoiak.

Arratoi-garbiketaren arduraduna jakinaren gainean zegoen, baina berriz ere 2025/03/19an abisua pasatu zitzaion. Eginda dago.

Udaltzaingoa

Bizilagun berak dio bitan saiatu direla egunkari-saltzaileari lapurtzen. Horrez gain, dio zamlanen gunean edozeinek aparkatzen duela.

Bai, udaletik ari gara neurriak ezartzen horrelakorik gerta ez dadin. Kontrolak egiten dira, atxiloketak...

Udaltzaingoa

Bizilagun batek zorionak ematen dizkio auzozainari txakur baten arazoaren aurrean laguntzeagatik; hala ere, orain beste txakur bat dagoela dio. (Adolfo auzozainari esan).

Animaliaren jabearekin hitz egin zen, arazorik eragin ez dezan.

HERRITARREN PARTE-HARTZEA

AUZO-BILERA: Urki 2024/11/21

Saila	Laburpena	
Zerbitzuak	Errekatxuko bizilagun bat kexu da kaleko edukiontziengatik eta espaloiarengatik. osasunari kalte egiteko moduan dago. Edukiontzi horiek kentzeko eskatzen du (Errekatxu). Gainera, Errekatxuko goialdean espaloian hezetasun handia duka eta lauzak higatuta daude. Bolinguan sastraka handiak daude.	Mankomunitateari kexaren berri eman zaio, arazoari irtenbidea emateko neurriak har ditzan (03/19). oso toki hezea da, baina, hala ere, Lan Agindua egin zen (472/2025) lauzak gainbegiratu eta egoera txarrean daudenak konpontzeko. Obra Sailak esku-hartze integral bat aztertu beharko luke. Bolinguako sastrakei dagokienez, lursail pribatua denez, jabeei errekerimendua egin zitzaien; erantzunik jaso ez zenez, azpikontratutako enpresa batek sastrakak kendu eta ingurua txukundu egin da (egikaritze subsidiarioa).
Udaltzaingoa	jendeak aparkatu egiten du Errekatxun dagoen espaloi zabalean, eta ezin da pasatu.	Kontrolak egiten ari dira kontu honen harira. Isunak jartzen ditugu, baina egia da traba handia sortzen ez bada, saiatzeko gaila isunik ez jartzen. Badakigu auzoan aparkatzeko arazoak daudela.
Hirigintza	Errekatxuko bizilagun baten ustez, Errekatxuberri amaitzean, auzoko alde “zaharra” apur bat baztertuta geldituko dela. Eskatzen du alternatiboak eta/edo laguntzak eskaintzea jendeak ingurua hobetu ahal izateko.	Plan Orokor berrirako lanei ekin diegu, zeinak inguruko konfigurazio berria aztertuko duen.
Zerbitzuak	Errekatxuko emakume batek dio bertako garbiketa-zerbitzua ez dela ona; are gehiago, oso txarra dela dio. dice que es lamentable. Auzoa alaitzeko zerbait egiteko esaten du. Inguru horretako barandak pintatu eta garbitu beharrean daudela.	Mankomunitateari kexaren berri eman zaio, arazoa konpondu dezan (03/19). Barandak direla-eta, lan Agindua (473/2025) egin da haien egoera aztertu eta baloratzeko. Beharra ikusiz gero, txukundu egingo dira.

HERRITARREN PARTE-HARTZEA

AUZO-BILERA: Urki 2024/11/21

Saila	Laburpena	
Zerbitzuak	Bizilagun batek Errekatxu 3ko lursailen egoeraz hitz egin nahi du: diru asko gastatzen ari da arratoiak hil eta sastrakak moztzen. Bertako igogailuak ez direla zaintzen dio, barandak ere ez, zikinak daude-eta. . Bolingua asfaltatzea eskatzen du.	Arratoiak hiltzeko arduradunari abisua eman zitzaion, inguru horretan jarduketa bat egin zezan. Harrezkero ez da horren inguruko kexarik jaso. Barandak direla-eta: lan Agindu bat dago txukundu daitezen; hala ere, herriko barandak aldian-aldian margotzen dira, ezarritako lehentasunen arabera.
Udaltzaingoa	Bizilagun batek eskatzen du jarri dadila berriz ere Urkiko goialdera joateko Udalbusa.	Ingurua estua denez, Udalbusa ezin da handik igaro. Hala ere, udalak taxibus zerbitzua eskaintzen du, antzerako zerbitzua ematen duena.
Zerbitzuak	Auzokide batek dio auzoa ez dela guztik kimatu. Era berean, adierazten du Urki tabernaren gainean dagoen kale-argiak oso argi gutxi ematen duela.	Inasketen kontuari erantzunez, zenbaitetan guneka egiten da; beste batzuetan ez da egiten lursail pribatua delako. Publikoa bada, Udalai jakinaraziz gero, enpresara bdieratzen da kexa, behar bezala amaitu dezaten lana. lan agindu abt egin zen, eta LEd argiak jarri dira.
Udaltzaingoa	Bizilagun batek dio Albert tabernaren parean dagoen zamalanen gunea beti dagoela beteta, eta errepikatzen du zebrabidea ez dela irisgarria.	Zamalanen erabilera egokia kontrolatzen saiatzen gara, eta, oro har, erabilera egokia ematen zaio. Zebrabideari dagokionez, orain inguruan aldaketak egin direnez, aldatzea merezi duen edo ez begiratuko dogu.
Udaltzaingoa	Bizilagun batek esaten du berriz ere jartzeko Polonia Etxeberria 11rako bus-zerbitzua. Taxibusa ez omen da nahikoa.	Aurten hobetu egin da taxibusaren ibilbidea. hala ere, iradokizunak jasotzeko prest gaude, hobetzen jarraitzeko.
Zerbitzuak	Bizilagun baten iritziz, Polonia Etxeberriako zebra-bideak pintatu egin behar dira. Arratoiak daudela ere esaten du.	Arratoiak: Arratoi-garbiketaren arduradunari abisua eman zitzaion inguru horretan jarduketa bat egin zezan. Ez dugu

HERRITARREN PARTE-HARTZEA

AUZO-BILERA: Urki 2024/11/21

Saila	Laburpena	
		berriro arratoiaren kexarik izan inguruan. Zebrabideak berriz pintatzearen gaiari berriro helduko diot laster.
Udaltzaingoa	Polonia Etxeberriako auzokide batek dio ohar bat jarri zela inguruan ez aparkatzeko, baina jendeak aparkatzen jarraitzen duela.	Informazio-kartelak jarri dira inguruan ez aparkatzeko. Horrez gain, ibilgailu hor aparkatu ohi dutenekin hitz egin da, berriz ez aparkatzeko esateko.
Zerbitzuak	Bizilagun berak eskatzen du Polonia Etxeberria 14-18 asfaltatzeko (igogailu-irteera).	
Udaltzaingoa	Auzokideek batek galdetzen du ea zer bait egin daitekeen Urkin ibilgailuak hain azkar joan ez daitezen.	Argi-seinalean jarri dira zebra-bidean, gidariak mantsoago joan daitezen. Inguru horretan kontrola egiten dira.
Zerbitzuak	Urkin inguruan arratoiak daudela dio bizilagun berak.	Arratoi-garbigetaren arduraduna jakinaren gainean zegoen, baina berriz ere 2025/03/19an abisua pasatu zitzaion.
Hirigintza	Ubitxako gizon batek 4 pegora aipatzen ditu: Bodega Martin, 9., 11. eta 13.a. Atzealdean 5 patio daude, eta berean hustubide bat dago. Irailaren amaieran, ekaitz handi baten ondoren, ura atera zitzaion komunetik.	Arazo konplexua da. Ziurrenik, komuneko hustubidea euri-uren sareari lotuta egongo da. Denbora gutxian egiten duen euri-kantitatea dela eta, sarea saturatu egiten da, eta "kargatu" egiten da (hustubideak ez du hodiko ur guztia husteko ematen, eta gainean dagoen uraren presioaren ondorioz, dagoen hartunerik baxuenetik ateratzen da (kasu honetan, lehen solairuko komunetik). Soluzioa ur beltzen sarea eta euri-uren sarea independentetzetan datza (baina hori ezinezkoa da)

HERRITARREN PARTE-HARTZEA

AUZO-BILERA: Urki 2024/11/21

Saila Laburpena

Zerbitzuak

Urki eta Ubitxa aldean arratoiak daudelako kexu dira.

Desratizazioaren arduradunari abisua pasatu zitzaion, eta hark arazoa konpontzeko beharrezkoak ziren neurriak hartu zituen.